

EAEn Nekazaritzako Sasoikako Lan Jardueretan COVID-19a geldiarazteko Jarduera Protokoloa

EUSKADIPREBEN-2021 ESTRATEGIA

2021eko abuztuaren 27a



**“Laneko Segurtasun eta Osasuneko Estrategia Sektoriala Euskadiko Elikaduraren eta
Egurraren Balio Katerako - 2025”**



*Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen, Lan eta Enplegu eta Osasun
Sailen baterako jarduketa, Foru Aldundiekin lankidetzan*

Berrikuspenen eta aldaketen kontrola		
Berrikuspen zk.	Data	Aldaketak
1	2020/08/06	EAEko eragile instituzional eta sektorialen artean adostutako lehen bertsioaren hasierako argitalpena.
2	2021/05/09	EAEko eragile instituzional eta sektorialek berrikustea, alderdi hauek kontrastatuz: • Arriskuekiko esposizioaren ebaluazioari eta ezarri beharreko neurriei lotutako jarduerak, erantzukizunak eta konpetentziak txertatzea. • Lehendik dauden neurri guztien eraginkortasunaren analisia jasotzen duen eranskina sartzea: higieena, lan espazioen ezaugarriak, detekzio goiztiarra eta kontrol epidemiologikoa, antolamendua eta norbera eta taldea babesteari buruzkoak. • Eranskin bat gehitu da, leku itxietan aerosolen bidezko transmisioa murrizteko eta kontrolatzeko neurrien laburpen batekin, birusaren hedapenari, transmisioari eta infekzioari aurre egiteko gaur egungo ezagutza aipatuz, esaterako, batez ere leku itxietan aerosolen bidez transmititzeari dagokiona. • COVID-19aren detekzio goiztiarraren, kontrolen eta prebentzioaren estrategia epidemiologikoa indartu da. • Prozedura berrikusi da, lanean hasi aurretik PCR proba eginda, Osasun Sailak gaur egun ezarritakoaren arabera. • Aerosolen bidezko hedapena eta transmisioa kontrolatzeari lotutako neurriak sartu dira. • "Nekazaritzako sasoikako lana erabiltzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena" jakinarazteko betebeharra kendu da behin-behinean.
3	2021/08/02	• Erreferentzia gisa, "COVID 19 ZIURTAGIRI DIGITALA" mugikortasun eta egiaztapen baliabidea sartu da, hobetzeko tresna potentzial gisa. • Txertoa sustatzeko orientabideak eta sentsibilizazio alderdiak erantsi dira, baita joan-etorrietan txertoa jartzeko aukerari buruzko informazioa ere. • Erantzukizunak eta prebentzio eta euste neurriak berrikustea, hala nola espazio itxietako aireztapenari, maskaren erabilerari, segurtasun distantziei eta abarri lotutakoak.
4	2021/08/27	• Erantzukizunak, betebeharrak eta prebentzio eta euste neurriak berrikustea, hala nola espazio itxietako aireztapenari, maskaren erabilerari, segurtasun distantziei eta abarri lotutakoak. • Txertoa hartu ez duten pertsonei txertoa jartzea eskaintzea. • Erreferentziak eguneratzea.

Kontraste taldea:

Prozedura garatzeko eta kontrastatzeko taldea hauek osatzen dute: osasun sektorean eta esparruan eskumena duten erakundeetako teknikariak, sektoreko erakunde eta elkarteak, erakunde publikoak eta berrikuntza teknologikoko zentroak.

Aurkibidea.

1.- Sarrera.....	4
2.- Helburua eta irismena.....	8
3.- Erantzukizunak eta betebeharrak.....	9
4.- Kanpainen planifikazioa.....	9
4.1.- Profesionalak kontratatzea eta lanean hasia.....	9
4.2.- Informazioa, Zaintza eta Kontrol Epidemiologikoa.....	9
5.- Garraioa eta lekualdaketa.....	13
5.1.- Garraio kolektiboan.....	13
5.2.- Auto partikularrean eta enpresaren/ustiategiaren autoan garraiatzea.....	13
6.- Landa lanerako protokoloa.....	14
6.1.- Lanera joan aurretik.....	14
6.2.- Landa lanerako lekuak.....	14
6.3.- Neurri higieniko eta babes neurri pertsonalak.....	15
6.3.1- Gune komunak.....	15
6.3.2- Higienea eta babes pertsonala.....	17
7.- Protokoloa leku itxietan (upategia, biltegiak, berotegiak, etab.).....	18
7.1.- Aurretiaz kontuan hartu beharrekoak.....	18
7.2.- Lanera joan aurretik.....	18
7.3.- Leku itxietan (upategia, biltegiak, berotegiak, etab.).....	19
7.3.1.- Neurri higieniko eta babes neurri pertsonalak.....	20
7.3.2.- Antolaketa neurriak.....	21
8.- Ostatu lekuetako protokoloa.....	21
9.- Positiboen eta kontaktu estuen kudeaketa.....	23
10.- Ikuskapena eta kontrola.....	24
11.- Berrikuspena eta eguneraketa.....	24
Taulen eta ilustrazioen aurkibidea.....	25
Bibliografia eta kontsultatutako erreferentziak.....	25
ERANSKINAK.....	29
1. ERANSKINA.- SARS-CoV-2 birusaren transmisioa kontrolatzeko prebentzio neurrien eraginkortasunaren analisia.....	30
2. ERANSKINA.- Aerosolek SARS-CoV-2 birusa hainbat egoeratan transmititzeko arriskuaren kategorizazio kualitatiboa.....	36
3. ERANSKINA.- Barneko espazioetan aerosolen bidez SARS-CoV-2 birusaren transmisioa kontrolatzeko eta murrizteko neurriak.....	37

4. ERANSKINA.- Sasoiko lanak hartzen dituzten eremuetan kontrol epidemiologikoa egiteko prozedura (OSAKIDETZA) 40

1.- Sarrera.

Joan den uztailaren 24an elkartu ziren autonomia erkidegoetako eta estatuko Osasun, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura alorretako ordezkari nagusiak, COVID-19aren pandemiak irauten duen bitartean sasoikako langileak lurralde batzuetatik beste batzuetara mugitzeak dakartzan arazoei heltzeko udalen eta eragile sektorialen artean beharrezkoa den lankidetzaz hitz egiteko.

Topaketan agerian jarri zen planifikatu beharra dagoela datozen asteetan nekazaritzako kanpainen arituko diren profesionalen mugimenduak, horien artean egonik mahats bilketa eta patataren kanpaina orokorrak.

Mugimendu horiei aurrea hartuta, lurraldeak elkarren artean koordinatuta eta erakundeek eta sektoreak lagunduta, sasoikako lanaren inguruko prozesu guztietan osasun alorreko bermea egotea lortu behar da, premiak, mugimenduak eta garraioa erabakitzeko etapetan zein sasoikako langile profesionalak ostatu hartzean eta dagozkien lanak gauzatzean, berdin dela nondik datozen eta zer bidetatik kontratatatu diren (jatorrian, adostua edo ustiatzean zuzenean).

Horrez gain, EAEko nekazaritza ustiatzeiek nekazaritzako kanpaina jakin batzuetarako sasoikako langileak kontratatatu beharra dutela eta, eta kontuan hartuta langile horiek gehienbat hirugarren herrialdeetatik etorritakoak direla edo EBko herritarrek ere badirela, gure erantzukizuna da pertsona horiei bizi baldintza duinak bermatzea Euskadin dauden bitartean.

Eusko Legebiltzarrak, 2002ko abenduaren 12ko osoko bilkuran, Sasoikako langilearen arretarako Plan Oso bat lantzeko eskatu zion Eusko Jaurlaritzari, baita Erakunde Arteko Mahai bat sortzeko ere, Plan horren estrategiak modu koordinatuan garatzeko.

Horrenbestez, 2004ko ekainaren 30ean, EAEko Sasoikako Lanaren Erakunde Arteko Mahaiak Sasoikako Lanaren Arretarako I. Plan Integrala egin eta onartu zuen, 2004-2007 aldirako.

Gaur egun, Sasoikako Lanaren Arretarako IV. Plan Integrala (2017-2020) dago indarrean, hiru multzo handitan egituratuta: (1), kontratazio baldintzak hobetzea, (2) ostatuak eta (3) sasoikako langileei lotutako adingabeen arreta.

Eremu horretan, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari dagozkio EAEko Sasoikako Lanaren Erakunde Arteko Mahaiaren presidentzia, Mahaiaren jarduerak koordinatzea eta ostatuen gaiarekin zerikusia duten ekintzak garatzea eta gauzatzea, tartean direla dagokion Erregistroa kudeatzea eta zaintzea.

Gaur egungo pandemia egoeran, jarduera hori bereziki indartzen jarraitu behar da, ostatu eta lan baldintzak bermatzeko zein COVID-19ari aurre egiteko prebentziorako eta babeserako; horregatik, laneko jardueretan prebentzio, babes eta kontrol neurriek beharrezkoak izaten jarraitzen dute, sasoikako langileentzat zein horien familientzat.

2020ko maiatzaren 15ean, Europako Nekazaritzaren Bazkide Sozialek (GEOPA, COPA eta EFFAT) "Europako herrialdeetako sasoikako langileen baterako adierazpena" sinatu zuten Bruselan, eta adierazpen horretan ekintza proposamen bat egin zen, alderdi hauek jasotzen dituen:

- Sasoikako langileek beren bizileku ez diren beste estatu kide batzuetara etortzeko aukera eduki behar dute, baldin eta, aldi baterako eskulanaren premiaren gaineko informazio truke egokiari lotuta, aurretiaz ezarritako baldintzak betetzen badira, onartuta nekazaritzaren sektoreetako lana funtsezko jardueratzat hartu behar dela eta lanarekin lotura duen garraioa egon behar dela estatu kidera.
- Enpresa edo pertsona enplegatzaileek bermatu behar dute estatu mailako agintariek erabakitako urruntze sozialeko neurriak eta osasun eta segurtasunekoak aplikatuko direla, bai lan ingurunean bai ostatuari dagokionez.
- Enplegatzailea langileak ostatutik lantokirako garraioaz arduratzen bada, kontrol, higiene, prebentzio eta babes neurri eraginkorrak bermatu behar dira.
- Enplegatzaileak dauden babes xedapenen berri emango diete kontratatutako langileei, haiek ulertzen duten hizkuntzan, eta agintaritza eskumendunek emandako materiala erabiliko dute.
- Enplegatzaileek doan eman behar dizkiete kontratatutako langileei babes ekipamenduak (maskarak, eskularruak, etab.) eta higiene produktuak (ura, xaboia, detergentea eta desinfektatzailea), indarrean dauden arauen arabera.
- Enplegatzaileak sasoikako langileak ostatatzeaz arduratzen badira, bermatu beharko dute urruntze soziala eta osasun eta higiene alorreko gainerako arau guztiak ezarritako arauen arabera aplikatzen direla.
- Enplegatzaileek bermatu behar dute sasoikako langileen lansariak aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboek edo legeria nazionalak diotenarekin bat datozela.
- Enplegatzaileek bermatu behar dute sasoikako langileak erregistratuta daudela eta aseguruia dutela, babes sozialeko tokiko legeriak eta hitzarmen kolektiboek ezartzen dutenaren arabera.
- Enplegatutako norbaitek COVID-19aren sintomak dituela uste bada, agintari mediko eskumendunekin jarriko da harremanetan berehala.

Euskadin, nekazaritzako aldi baterako lan kanpainetan profesionalak kontratatzen dira aldi baterako, eta beharrezkoa da COVID-19aren aurrean prebentzio neurriak hartzea. Enpresen eta ustategien erantzukizuna da pertsona horiek prozesu bakoitzean eta egiten duten lanean aurkitu ditzaketen esposizio arriskua ebaluatzea, eta prebentzio zerbitzuek ezarritako gomendioak bete behar dituzte, osasun agintaritzek indarrean dituzten jarraibideak betez.

Begi-bistakoa dirudi kanpaina garatzen den bitartean pertsona horiek duten ostatua funtsezkoa dela, horiek izan daitezkeelarik ustategiek beraiek eskainitakoak, aterpeak, alokatutako etxeak, etab., kontuan hartuta beharrezkoa izan daitekeela jangelak eta ikasgelak egotea laguntzen dieten familientzat.

Eremu geografikoen eta lurraldeen arteko desplazamenduak, bai nazioartekoak, estatukoak nahiz Euskadi barrukoak, bai jarduerak berak, zeina taldeka eta/edo koadriletan egiten baita, pertsonen arteko eta interakzio sozialeko harreman garrantzitsua ekar dezake. Profesional horietako askok jatorri multikulturala eta migratzailea dute, eta askotan elkarrekin bizi behar dute eremu komunak partekatuz, baita banaketa fisikorik gabeko gelak partekatuz ere. Kasuistika horrek osasun arloko neurriak eta gomendioak ezartzeko eskatzen du, esposizio potentziala minimizatzeko eta, beraz, SARS-CoV-2a transmititzeko arriskua gutxitzeko.

Jarduera horien arduradunek neurriak ezarri behar dituzte kontaktuak eta transmisio potentziala ahalik eta gehien mugatzeko, higie, antolamendu eta kontrolerako neurriak ezarriz, horien artean egonik birusaren hasierako kontrolak, detekzio goiztiarra eta kontrol epidemiologikoa zein horri lotutako prebentzio jarduerak, higie eta antolamenduko alderdiak, espazioen kudeaketa (leku irekiak eta itxiak, esaterako, ostatua, upategiak, berotegiak, etab.) eta hedapenaren eta bere bektoreen kontrola, esaterako, aerosolena, etab. Neurri ezberdinen konbinazio egokiak minimizatu egin beharko ditu birusarekiko esposizioa eta transmisioa.

(ikus 1. ERANSKINA.- SARS-CoV-2 birusaren transmisioa kontrolatzeko prebentzio neurrien eraginkortasunaren azterketa).

Arreta berezia jarri beharko zaie, transmititzeko aukera handiagoa dagoelako, lan egiteko leku itxiei, esaterako, upategi, biltegi, berotegi eta abarri, horietako batzuek baldintza termo-higrometrikoko oso bereziak baitituzte, aerosolak sortzen lagun dezaketenak. Gainera, lan eremu horiek higie eta garbiketa elementu eta instalazioez hornitu behar dira, zerbitzu higienikoaren premia guztiak asetzeko gai izango direnak.

Birusaren hedapena, transmisioa eta infekzioa oinarri hartuta une honetan dauden ezagutza eta azterketa zientifikoek agerian uzten dute aerosolak transmisio bide bat direla, eta horren gainean jardun behar dela leku itxietan kutsatzea eta hedatzea geldiarazteko (ikus ERANSKINAK).

Aerosolen bidez SARS-COV-2az kutsatzeko arriskuen ebaluazioak zehazten du SARS-CV-2 birus bideragarria duten aerosolak sortzeko arrisku handiagoan edo txikiagoan eragiten duten faktoreak eta horien transmisioa hauek direla:

Bektorea	Faktoreak
Igorlea (kutsagarritasun aldian infektatutako pertsona)	• Infektatutako pertsonaren birus karga. • Isuritako aerosolen kontzentrazioa eta tamaina. • Isurpen denbora.
Hartzailea (pertsona sentikorra)	• Arnastutako airearen bolumena. • Esposizio denbora. • Birus kontzentrazioa inhalatutako aerosoletan. • Isurlearekiko posizioa eta distantzia. • Zaugarritasun pertsonala.
Agertokiaren araberako baldintzak (Ikus 3. ERANSKINA)	• Transmisio komunitarioaren maila eta egon daitezkeen ehunekoak. • Denbora, espazioa. • Kanpoaldeak eta barrualdeak. • Aireztapen egokia. • Isuritako partikulen portaera aerodinamikoa.

1. taula.- SARS-CoV-2 birus bideragarria duten aerosolak sortzeko arrisku faktoreak. Hemendik lortua: Osasun Ministerioaren dokumentu teknikoak: SARS-CoV-2a aerosolen bidez transmititzeko arriskua ebaluatzea. Prebentzio neurriak eta gomendioak.

Ildo horretan, leku itxietan aireztapen neurri naturalak, behartuak edo mistoak aplika daitezke, baita ere airearen kalitatea sentso bidez kontrolatu, bioaerosolen bidezko garraioa kontrolatu, aire fluxuak eta horien konfigurazioa analizatuz, klimatizazio instalazioak egokitu eta mantendu, dagokionean, eta ekipamendu espezifiko eta homologatuekin inaktibatze edo arazteko aukerak aztertu.

Kontuan hartu behar da gaur egun COVID-19aren aurkako neurriak eraginkorrena txertoa dela, eta, horregatik, langileen artean zabaldu behar da, eta enpresek eta erakundeek sustatu behar dute, baita Europar batasunak bultzatu duen COVID digitalaren ziurtagiria ere, joan-etorriak eta mugikortasuna bermeekin egiteko. (www.euskadi.eus, 2021).

kanpainak direla-eta edo beste arrazoi batzuegatik lan egitera erkidegoen artean mugitu behar bada, eta txertoa jartzen hasi edo pauta osoa jaso ez bada, desplazamenduko osasun txartela eskatu beharko da; txartel horrek aukera ematen du Espainiako estatu osoan osasun laguntza jasotzeko, eta horrekin hasi edo amaitu ahal izango da txertaketa pauta helmugan.

Kontsultatu informazio gehigarria komunikazio kanal ofizialetan:

Osalanek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) kontaktu hauek gaitu ditu laneko arriskuen prebentzioari buruzko kontsultetarako kanpainarako:

Telefonoa: **945016800**

Posta elektronikoa: osalan.covid19temporeros@euskadi.eus

<https://www.osalan.euskadi.eus/campana-de-temporerismo-2021/s94-contqha/es/>

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetza. Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europako Politiketako Zuzendaritza.

https://www.euskadi.eus/web01-a2lanits/es/contenidos/informacion/campana_temporeros/es_agripes/index.shtml

Osasun Saila: <https://www.euskadi.eus/material-informativo-coronavirus/web01-a2korona/es/>

Euskadi-preben 2025 Estrategia: <https://www.preben.eus/materiales-agricultura/>

2.- Helburua eta irismena.

Proposamen honen helburua da Nekazaritza Ustiatagietarako higie eta osasuneko segurtasunaren alorrean dagoen protokoloa berrikustea eta eguneratzea. Protokoloak ezagutzera ematen zituen sasoikako langileak kontratatuko dituzten nekazaritza sektoreko enpresetan eta langile horiei emandako ostatu lekuetan inplementatu beharreko jardunbide egokiak, langileen artean SARS-CoV-2a hedatzea eta infektatzea prebenitzeko.

Protokolo honek, nekazaritzako ustiatagien sektorerako aplikagarriak diren segurtasun neurrien bilduma bat jasotzen duen erreferentzia bat izateaz gain, nekazaritzako kanpainetan egingo den lana ahalik eta segurtasun eta osasun bermerik handienekin eta eraginkortasunez garatzea bermatzeko sektoreak, erakundeak eta langileak COVID-19aren pandemiaren esparruan izango dituzten betekizunak, obligazioak eta erantzukizunak ere jasotzen ditu.

Horretarako, kontuan hartu dira Osasun Ministerioak, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak eta OSALAN-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak landutako jarraibide eta gomendio guztiak, baita estatu eta Europa mailan baliagarri diren beste erreferentzia batzuk ere, eta egungo ezagutza zientifikoa.

3.- Erantzukizunak eta betebeharrak.

Nekazaritzako enpresa eta ustiatagietako pertsona guztien zeregina da langileen segurtasuna zaintzea, osasun agintaritzek eta administrazio eskumendunek unean-unean emandako jarraibideak, gomendioak eta neurriak betez, gaur egun hauek, esaterako:

- Ezarritako distantzia soziala.
- Higiene neurriak.
- Lan tresnak eta ekipoak, instalazioak eta abar garbitzea eta desinfektatzea.
Arnasketa babesteko osasun neurriak: maskara nahitaez erabiltzea espazio itxietan beti, eta espazio irekietan pertsonen arteko segurtasun distantzia (1,5 metro) mantendu ezin denean, baita era guztietako desplazamenduetan ere.
- Aireztapen egokia espazio itxietan eta era guztietako joan-etorrietan.

Neurriok garraioan eta lanlekuetan hartu behar dira, eta, esku artean dugun kasuan, sasoikako langileen ostatu lekuetan ere bai.

Bai enplegatzaileek, bai kontratatutako pertsonak, katearen zati baten ardura dute, denon artean lan jardura eta gune guztietan segurtasun higieniko-sanitarioa bermatzea lortzeko, Prebentzio Zerbitzuen ahokularitzarekin.

Denon ardura da, banaka eta taldeka, pandemia gure lan ingurunean zein gure ingurune sozialean ez hedatzeko kontrolatzen laguntzea.

4.- Kanpainen planifikazioa.

4.1.- Profesionalak kontratatzea eta lanean hastea.

Enpresak **erregistro** bat eduki beharko du kontratatutako langileen zerrendarekin, non haiekin harremanetan jartzeko telefono zenbakiak, ostatu hartuko duten lekuak eta dagokien langile taldea ere adieraziko baita. Familien gaineko informazioa ere jasoko da, baita adingabeen gainekoa ere.

Enpresak, halaber, **beharrezko zerbitzuen kontratazioak eta azpikontratazioak** (garbiketa eta desinfekzioa, garbitegia, hornidurak, etab.) aurreikusi beharko ditu. Beharrezkoa izango da langileak behar bezala identifikatuta egotea (izena, abizenak, postuak eta zerbitzuak, telefonoak eta helbideak, etab.).

4.2.- Informazioa, Zaintza eta Kontrol Epidemiologikoa.

Sasoikako langile guztiak informazio, zaintza eta kontrol epidemiologikorako prozesu baten menpe egongo dira, COVID-19ari dagokionez, eta komenigarria izango da atal hauek garatzea:

- Sasoikako langileen taldeen ezaugarritzea (jatorrian kontratatutako taldeak, familiak eta langile taldeak, zonaldeko pertsonak, beste erkidego batetik modu programatuan desplazatutako pertsonak, enpresan zuzenean kontratatutako pertsonak, etab.).
- COVID-19 detekzio goiztiarreko estrategia epidemiologikoa, kontrolak eta prebentzioa:
 - Epidemia eta mugikortasuna kontrolatzeko dauden tresnak erabili beharko dira, hala nola EBren COVID ziurtagiri digitala. Ziurtagiri horrek egiaztatzen du pertsonen COVID19aren aurkako txertoa jarri zaiela, edo emaitza negatiboa izan duen proba bat egin dela edo COVID19tik osatu dela. Agintari nazionalak dira ziurtagiria ematearen arduradunak. Adibidez, probak egiten dituzten zentroek edo osasun agintariek eman dezakete, edo, zuzenean, osasun elektronikoko atari baten bidez. Osasun agintari nazionalek ziurtagiria lortzeko moduari buruzko informazioa eman behar dute (Comisión Europea, 2021). Bertsio digitala gailu mugikor batean gorde daiteke. Herritarrek paperezko bertsioa ere eska dezakete. Biek QR kode bat izango dute, funtsezko informazioa izango duena, baita sinadura digital bat ere, ziurtagiria benetakoa dela ziurtatzeko. Estatu kideek diseinu komun bat adostu dute, bertsio elektronikoetan eta paperean erabil daitekeena aitortzea errazteko.
 - Garrantzitsua da langileek izan dezaketen immunitate egoera ezagutzea eta egiaztatzea, aukera hauen bidez:
 - Txertoaren ziurtagiria.
 - COVID19tik osatu izanaren ziurtagiria.
 - COVID 19aren proba negatiboen ziurtagiria.
 - EBren COVID Ziurtagiri Digitala.
 - Ildo horretan, garrantzitsua da langileen kolektiboak sentsibilizatzea, txertoa baita COVID19aren aurkako neurririk eraginkorrena eta efizienteena, pixkanaka normaltasun handiagoko agertokietara iristeko aukera emango duena, bereziki lan eremuan.
 Lanean hasi aurretik, baheketa bat eskainiko zaie lekualdatutako langile guztiei denboraldia betetzeko. Halaber, baheketako PDIA proba eskainiko zaie lekualdatutako langilearekin denboraldian bizi diren lekualdatutako zuzeneko senideei ere. PCR proba egingo zaie sintomarik ez duten pertsonen, eta antígeno testa sintomak dituztenei. Proba horiek Osakidetzak egingo ditu. **PCR edo beste proba diagnostiko bat egiteko ordua 900 101 400 telefonoan edo temporeros.osiriojaalavesa@osakidetz.eus helbide elektronikoan eskatu beharko da.**
 - Txertoak immunitate egoeran duen garrantzia kontuan hartuta, txertatzeko eskaintza (Janssen, 1 dosi) gehitu zaie baheketaren egunean bertan txertoa hartuta ez duten pertsonen.
 - Proba horren emaitzak zehaztuko du une horretan pertsonak COVID19aren bidezko infekzio aktiborik duen, eta gaixotasunaren transmisio kateak eteteko berehalako neurriak ezartzea ahalbidetuko du.
 - Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzak laginak hartzeko guneak planifikatuko dituzte, ezaugarritutako taldeen eta languneen arabera, eta emaitzak eskura edukitzeko beharrezkoa den denbora ere planifikatuko dute.

- Diagnostiko probaren emaitza positiboa bada:
 - Langileak SMS batean jasoko du emaitza, emandako telefono mugikorreko zenbakian.
 - Aztarnarien taldea telefonoz harremanetan jarriko da kasua baloratzeko eta kontaktu estuak nortzuk izan diren zehazteko (bizikideak, lankideak, harreman sozialak, etab.) . Profesional horiek baloratuko dute, gainera, ostatuak bakartzeko beharrezko segurtasun baldintzak betetzen dituen edo bakartze hotel batera eraman behar den. Komenigarria litzateke profesional horiek enpresako harremanetarako pertsonarekin harremanetan jartzea, dagokion kasuarekin komunikatzeko arazoak egon baitaitezke.
 - Langilea gutxienez 10 egunez egongo da bakartuta sintomak hasten direnetik edo proba egiten denetik, gaixotasuna sintomarik gabe agertzen bada. Epe hori luza daiteke sintomek irauten badute. Lehen Arretako talde batek aldian-aldian deituko du, bilakaera klinikoa baloratzeko eta alta noiz eman daitekeen zehazteko.
 - Kasuaren kontaktu estuei dagokienez, honela tratatuko dira:
 - A. Txertatu gabeko kontaktuak:** Berrogeialdia aginduko da baieztatutako kasu batekin azken kontaktua izan eta ondorengo 10 egunetarako.
 - B. Txertatutako kontaktuak:** txertatzeko pauta osoa jaso duten eta kontaktu estutzat hartzen diren pertsonak berrogeialditik salbuetsita egongo dira. PCR bat egingo zaie baieztatutako kasuarekin azken kontaktua izan eta 8 egunera, eta gomendatuko da pertsona ahulekin eta txertorik hartu ez dutenekin kontakturik ez izatea. Halaber, gizarte interakzioetan maskara erabiltzeko, ekitaldi jendetsuetara ez joateko eta ager daitezkeen sintoma bateragarriak zaintzeko esango zaie; baldin eta sintoma horiek agertzen badira 5 egun baino gehiago, PCR bat egingo da.
 - C. Aurreko 180 egunetan PDIak baieztatutako SARS-CoV-2 bidezko infekzioa izan duten eta kontaktu estuak diren pertsona asintomatikoak** berrogeialdia egitetik salbuetsita egongo dira. Baina 90 eta 180 egun bitartean infekzio aurrekari bat dutenei PCR bat egingo zaie, baieztatutako kasuarekin azken kontaktua izan eta 8 egunera. Halaber, gizarte interakzioetan maskara erabiltzeko, ekitaldi jendetsuetara ez joateko eta ager daitezkeen sintoma bateragarriak zaintzeko esango zaie; baldin eta sintoma horiek agertzen badira 5 egun baino gehiago, PCR bat egingo da.
 - Momentuan dagoen aldi baterako bizilekuan bakartzea eta/edo berrogeialdia betetzea ezinezkoa ez bada, hainbat lurraldetan prestatu diren hoteletara bideratzea kudeatuko da, eta alta eman ondoren lanera itzuli ahal izango da.

- Jokabide eta erantzukizun indibiduala eta soziala, adierazitako jarraibide eta neurriekin, emaitza izan arte.
- COVID-19a prebenitzeko eta babesteko neurri espezifikoaren gaineko informazioa (ostatu lekuen, desplazamenduen eta landako lanaren gaineko ataletan ezarritako neurriak):
 - Ostatu lekuak eta landako lana
 - Arnasbideak babesteko osasun neurriak, esaterako, maskararen erabilera.
 - Higiene neurriak.
 - Joan-etorrietarako neurri egokiak.
 - Espazio itxietako aireztapen neurri egokiak.
 - Jokabide eta jarrera soziala.
 - Zabalkunderako eta informaziorako euskarriak: seinaleak, infografiak, triptikoak, audioak, etab.
 - Etab.
- Enplegatzaileek eta langileek prebentzioaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren babesaren gaineko informazioaz eta formazioaz dituzten betebeharrak gogoraraztea.
- Langileen informazioa eta prestakuntza funtsezkoak dira oraingoa bezain berezia den egoera batean neurri teknikoak, antolaketa neurriak eta neurri higienikoak behar bezala hartzeko eta ezartzeko. Bermatu behar da langile guztiek ezartzen diren neurri berezien gaineko informazio eta prestakuntza berezia eta eguneratua dutela. Higiene eta prebentzio neurriak bultzatzen dituzten kartelak, seinaleak, triptikoak eta dokumentuen erabilera bultzatuko da. Egiaztatu behar da pertsonak eman zaien informazioa ulertu dutela, izan ere, batzuetan berea ez den hizkuntza batean ematen zaie informazioa eta zailtasunak izan ditzakete hizkuntza hori ulertzeko edo irakurtzeko.

Eskuen garbiketari buruz eta babes pertsonalaren eta infekzioaren gaineko informazioa ematen duten kartelak eta infografiak jarriko dira lantokian, ondo ikusten diren lekuetan, eta, bereziki, lantokiaren sarreran, komunetan, aldageletan eta jantokietan. Garrantzitsua da azpimarratzea informazioa eta prestakuntza egokituz joan behar dela, pandemiaren bilakaeraren eta pandemiak ezagutzen denaren arabera. Informazio, formazio edo laguntzako dokumentazio guztiak langileek ulertzen duten hizkuntzan egingo dira eta hizkuntza horretan emango zaie langileei. Langileek informazioa eman zaiela eta prestakuntza jaso dutela egiaztatu beharko dute, eta egiaztapen hori erregistratu egingo da.

- Informazioari eta formazioari lotutako alderdiak batera garatuko dituzte nekazaritzako enpresa eta ustiatuek, beren prebentzio

erakundearen bitartez, inplikaturako erakunde eta antolakunde sektorialen laguntzarekin.

- Kontingentzia Planak.

Enpresa bakoitzak Kontingentzia Plan bat landu eta zaindu beharko du, lantoki bakoitzaren ezaugarrietara egokituta eta prebentziora eta, COVID-19aren kasuak edo horrelako kasuekiko kontaktu estuak agertuz gero, erantzuna ematera bideratuta.

[https://bideoak2.euskadi.eus/2020/04/11/news_61330/Guia arranque de actividad.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2020/04/11/news_61330/Guia_arranque_de_actividad.pdf)

5.- Garraioa eta lekualdaketa.

Sasoikako langileen garraiorako eta lekualdaketarako premiei dagokienez, agintaritza eskumendunek ezarritako jarraibideak beteko dira. Dena dela, neurri hauek egokitzen jotzen dira:

5.1.- Garraio kolektiboan.


- Arnasbideak babesteko osasun neurriak, esaterako, maskararen erabilera.
- Pertsonen artean ezarritako segurtasun distantzia.
- Eskura dauden higienizazio tresnen erabilera.
- Isilik egotea edo ahots tonua murriztea, garrasi ez egitea (ikus 1. ERANSKINA).
- Beste batzuk.

5.2.- Auto partikularrean eta enpresaren/ustiategiaren autoan garraiatzea.

- Ezaugarritutako taldeko beste kide batzuekin baino ezingo da autoa partekatu.
- Agintaritza eskumendunek ezarritako jarraibideak beteko dira.
- Gel hidroalkoholikoa erabilgarri dagoela egiaztatuko da.
- Maskara behar bezala doituta eta jarrita erabiliko da.
- Hala badagokio, ibilgailuaren klimatizazio sistemak berrikustea, airea birzirkulatzea saihestuz, berritzeko aukera emanez eta leihatilak ahal den guztietan irekiz.
- Autoan doazen guztiek maskara jantzita eraman beharko dute bidaia irauten duen bitartean.
- Ibilgailua behar bezala garbitu eta desinfektatuko da; arau orokor moduan, jarraibide hauek beteko dira:

Medidas higiénicas en vehículos privados

Limpia con frecuencia todas las superficies
que se tocan habitualmente



1. ilustrazioa .- Ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko jarraibideak.

6.- Landa lanerako protokoloa.

Landako lanean jarraibide eta gomendio hauek beteko dira protokolo gisa:

6.1.- Lanera joan aurretik.

- Langileari garbi azaldu behar zaio COVID-19arekin lotura izan dezakeen edozein sintoma edukiz gero (eztula, sukarra, arnasteko zailtasuna, etab.) EZ dela lanpostura joan beharko, eta Osasun Kontseiluarekin jarriko da harremanetan, 900 20 30 50 telefonoan.

6.2.- Landa lanerako lekuak.

- Ustiategiaren eta ibilbidearen erregistro bat edukiko da (eskuzkoa edo teknologikoa), baita langile taldeak osatzen dituzten pertsonen eta beste langile talde batzuekin dituzten interakzioen zerrenda bat ere. Arduradun bat izendatu behar da erregistroa mantentzeko.
- Lanlekua banatzean, kontuan hartuko da landa lekuetan –jarduerak uzten badu– eta aldagela, atseden leku, zerbitzu higieniko, jantoki eta beste toki batzuetan ere pertsonen arteko segurtasun distantzia mantentzea bermatu behar dela.
- Lantaldeak edo langile taldeak antolatzea. Langile taldeak antolatzean, argi identifikatuko dira talde bakoitzeko langileak.
- Ahal den neurrian, saihestuko da langile taldeek lanak elkarrekin egitea eta ezaugarritutako langile taldeen artean langileak trukitzea. Lantalde edo langile talde bakoitzean arduradun bat izendatuko da, aurreikusitako prebentzio neurriak betetzen direla zaintzeko.
- Gomendatzen da langile taldeentzat ondo bereizitako lan guneak prestatzea.
- Gomendagarria da, halaber, langile talde bakoitzari komun jakin batzuk esleitzea, eta beti saiaturik da bainugela eta komun eramangarriak ondoren adierazten diren prozedurei jarraituta garbitzen eta desinfektatzen, adierazitako prozedurei jarraituz.

6.3.- Neurri higieniko eta babes neurri pertsonalak.

6.3.1- Gune komunak.

- Garbiketa eta desinfekzioa egoki egitea errazteko, instalazioak baldintza egokietan eduki beharko dira, hondatutako guneak konponduz, ordenatuta edukiz, behar ez diren materialak eta objektuak kenduz, etab.
- Kontrolak eta antolaketa neurriak ezarriko dira instalazioak (jantokia, garbitasunerako lekuak, aldagelak eta ustiategiaren beste gune komun batzuk), lan ekipamenduak eta langileen ostatu lekuak garbitzeko eta desinfektatzeko, baita leku itxiak aireztatzeko ere, lehentasuna emanez barruko airea berritzatzea eta birzirkulazioa saihestuz.
- Garbitzaileek norberaren babeserako ekipamendu egokia erabiliko dute (eskularruak, mantalak, etab.), eta ekipamenduak erabili ondoren modu seguruan baztertuko dituzte, eta ondoren eskuak garbituko dituzte. Garbiketa lanetarako, ahal bada, erabili binilozko/akrilonitrilozko eskularruak. Latexezko eskularruak erabiliz gero, gomendatzen da azpian kotoizko eskularru bat janztea.
- Erabili beharreko produktua:
 - Ziurtatu desinfektatzaile arruntak erabiltzen direla (lixiba, alkohol edo ur oxigenatutako soluzioak) edo Bioziden Erregistroan jasota dauden detergenteak eta desinfektatzaileak (https://www.mscbs.gob.es/en/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/Listado_virucidas.pdf).
 - Jarraitu erabilerarako zehaztapen teknikoei, intoxikazio posibleak ekiditeko. Instalazioak, lan ekipamenduak eta ostatu lekuak sarriago garbitu eta desinfektatu (sarri ukitzen diren gainazalak, ateen heldulekuak, altzariak, zoruak, komunak, etab.)

- Beste neurri batzuk:
 - Lanleketan erabilera komuneko gailuak kendu edo itxi, hala nola ahoa txorrotara hurbiltzea eskatzen duten iturriak.
Erremintak, saskiak, makina eramangarriak eta ekipoak pertsonalki esleitzea, beti langile berak bakarrik erabiliko dituela bermatuz.
Lanaldia hasi aurretik eta amaitzean garbitu eta desinfektatu egin behar dira, eta ez dira nahasi behar. Ahal den neurrian, lan tresnak eta ekipoak partekatzea saihestuko da.
 - Makinak higienizatu. Txandaka erabili daitezkeen eta, beraz, beste pertsona batzuek erabiliko dituzten makinak edo ekipamenduak (landatzeko makina, traktoreak, uzta biltzeko makinak, etab.) erabiltzen diren bakoitzean, beharrezkoa da eskuakin ukitzen diren gunek eta bestelako gainazalak garbitzea eta produktu desinfektatzaileak aplikatzea.
 - Aurreikusiko da lursailaren hainbat tokitan edateko ur kloratuko bidoiak, xaboia eta paperezko zapiak jartzeko aukera.
 - Egiterik balego, hidrogel edo xaboi likidoaren banagailuak eta behin erabiltzeko toallak eskura jarri beharko dira lursaileko edo lanlekuko hainbat tokitan, hala nola biltegietan, makinen garajeetan, berotegietan, etab.
 - Tapa eta pedala dituzten paperontziak edo hondakinak botatzeko edukiontzi tapadunak jarriko dira instalazioaren gune komunetan, zapiak eta botatzeko den beste edozein material uzteko, sarri garbitu beharko dira eta.
 - Objektuak ez partekatzea gomendatzen da. Objektuak trukatzeko ekidin ezin bada, objektuak trukatu ondoren eskuak desinfektatuko dira.
 - Arropa: gomendatzen da laneko arropa egunero garbitzea eta aldatzea.
 - Laneko arropa garbitzeko, ahalik eta gutxien manipulatu da, astindu gabe, eta bildu egingo da, suabe, eta zuzenean garbigailura eramango da edo poltsa batean sartuko, garbituko den lekura eramateko
 - Aldagelan, lanaldiaren hasieran, langileek arropa eta oinetakoak aldatzen dituztenean, eskuak garbitu beharko dituzte. Lanpostuetan gela edo soluzio alkoholikoak erabili daitezke, higiene egokia edukitzeko.
 - Ezin dira katiluak, edalontziak, mahai tresnak eta jateko erabiltzen diren beste tresna batzuk partekatu, eta gomendagarria da horiek denak behin erabiltzekoak izatea, erabili ondoren plastikozko poltsa bat eta tapa duten edukiontzietara botatzeko.
 - Leku komunetan eta itxietan, kontuan hartu alderdi hauek:
 - Ahots tonu baxua izatea, garrasi ez egitea (ikus 1. ERANSKINA).
 - Areagotu aire berritzeak, dela modu naturalean, dela behartuta.
 - Klimatizazio sistemaren kasuan, murriztu birzirkulazioa, areagotu airea berritzeko aldiak, eta handitu iragazkiak garbitzeko edota ordeztzeko maiztasuna (ikus 3. ERANSKINA).

6.3.2- Higienea eta babes pertsonala.

- Langileak kutsatzea ekiditeko, gomendatzen da besarkadarik eta musurik ez ematea edo beste batzuei eskua ez ematea.
- ESKUEN HIGIENEA infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko neurri bat da (OME-Osasunaren Mundu Erakundearen gomendioa). Gutxienez 40 segundoz garbitzea, marrazkian azaltzen den moduan.



2. Ilustrazioa .- Eskuak garbitzea. Iturria: Eusko Jaurlaritza.

- Azazkalak motzak eta zainduta eduki behar dira.
- Saihestu eraztunak, eskumuturrekoak, eskumuturreko erlojuak edo eskuak ondo garbitzea zaildu dezakeen bestelako apaingarriak erabiltzea.

ARNASKETAKO ETIKETA:



3. Ilustrazioa .- Arnasketako etiketa. Iturria: Eusko Jaurlaritza.

- Eztul eta doministiku egitean, estali sudurra eta ahoa paperezko mukizapiekin eta bota mukizapiak tapa eta pedala dituen zakarrontzi batera.

- Paperezko mukizapirik ez baduzu, alkandoraren mahukaren gainean egin ez tul eta doministiku, eskuak ez kutsatzeko.
- Saihestu begiak, sudurra edo ahoa ukitzea, ez eskuekin, ez eskularruekin, horrek birusa transmititzea errazten baitu.
- Arnasbideen higienarako ohitura onak eduki behar dira. Ez bota txistua, erabili behin erabiltzeko mukizapiak.

MASKARAREN ERABILERA:

- Maskara indarrean dagoen araudiaren arabera erabili behar da, eta sudurra eta ahoa estaliz jarri behar da uneoro. Maskara aldatzean, enpresa hornitzaileak ezarritako zehaztapenei egingo zaie kasu.

7.- Protokoloa leku itxietan (upategia, biltegiak, berotegiak, etab.).

Leku itxietako lanerako jarraibide eta gomendio hauek beteko dira:

7.1.- Aurretiaz kontuan hartu beharrekoak.

- Sarrerei eta landako materialaren sarrerei buruzko erregistro bat edukiko da (eskuzkoa edo teknologikoa), baita talde horietako leku horietan taldeak osatzen dituzten pertsonen eta beste talde batzuekin izan ditzaketen interakzioen zerrenda bat ere. Arduradun bat izendatu behar da erregistroa mantentzeko.
- Saihestu behar da landako prozesuen eta upategi, berotegi eta beste esparru itxi batzuen berezko prozesuen artean kontaktua egotea, eta horretarako oztopo fisikoak ezarriko dira eta prozesuen sekuentzia ordenatuko da, haien arteko interakzioak eta kutsatzea ekiditeko.

7.2.- Lanera joan aurretik.

- Langileari garbi azaldu behar zaio COVID-19arekin lotura izan dezakeen edozein sintoma edukiz gero (eztula, sukarra, arnasteko zailtasuna, etab.) EZ dela lanpostura joan beharko, eta Osasun Kontseiluarekin jarriko da harremanetan, 900 20 30 50 telefonoan.

7.3- Leku itxietan (upategia, biltegiak, berotegiak, etab.).

- Enpresak/ustiategiak baimendutako langile profesionalak baino ez dira sartuko esparrura, eta sartzen diren langileen erregistro zehatza egingo da une oro.
- Lanlekua banatzean, kontuan hartuko da landa lekuetan –jarduerak uzten badu– eta aldagela, atsedeen leku, zerbitzu higieniko, jantoki eta beste toki batzuetan ere pertsonen arteko segurtasun distantzia mantentzea bermatu beharko dela, edukierak mugatuta egonda.
- Oztopo fisikoak eta babesekoak ezartzeko aukerak aztertuko dira, hala nola kristalezko edo metakrilatozko manparak.
- Lantaldeen antolamendua: lantaldeak talde bakoitzeko langileak argi identifikatuta antolatuko dira. Esaterako, lantalde hauek bereiziko dira: lantegiko langileak, administrazioako langileak, laborategiko langileak, etab. Landa eta upeltegiko lanak bereizita egingo dira; beraz, egokia izango da sotoan sartzeko kutxak manipulatzeko dituen taldea independente gisa ezartzea, eta eskuen higiegi egokiari eutsi beharko zaio etengabe.
- Behar-beharrezkoa ez bada, ez da taldeen arteko jarduerarik egingo.
- Ongi bereizitako lan eta banaketa guneak prestatu beharko dira, bai espazialak bai tenporalak, talde bakoitzarentzat. Lan txandak badaude, aireztatu eta desinfektatu egingo da txanden artean.
- Beharrezkoa izango da arduradunen edo lanaldi zatituko langileen arteko interakzioa aztertzea, talde edo txanda bat baino gehiagorekin eta abarrekin kontakturik ez izateko.
- Langileak aire korrante eta fluxu beretan jartzea saihestuko da (ikus 3. ERANSKINA).
- CO₂aren kontzentrazioa homologatutako gailu batekin monitorizatzea gomendatzen da, jarduteko eta mantentze eraginkorrerako neurri osagarri gisa (ikus 3. ERANSKINA).
- Aire modu eraginkorrean berritzea bermatu beharko da, modu naturalean edo behartuan.
- Klimatizazio sistemaren kasuan, murriztu birzirkulazioa, areagotu airea berritzeko aldiak, eta handitu iragazkiak garbitzeko edota ordezteko maiztasuna.

7.3.1.- Neurri higieniko eta babes neurri pertsonalak.

- Langileak kutsatzea ekiditeko, gomendatzen da beste pertsona batzuei besarkada, musu edo eskurik ez ematea.
- Eduki eskura behin erabiltzeko zapiak eta soluzio/toallatxo alkoholdunak, baita oinarritzko informaziorako gune bat ere.
- Tapa eta pedala dituzten paperontziak jarriko dira zapiak eta botatzeko den beste edozein material uzteko, eta paperontzi horiek sarri garbitu beharko dira. Gomendatzen da azazkalak motzak edukitzea.
- Gomendatzen da eraztunik, eskumuturrekorik, erlojurik edo eskuak eta eskumuturrak garbitzea zailtzen duen bestelako apaingarririk ez eramatea.
- *6.3.2.- Higiena eta babes pertsonala* puntuan ezarritako eskuen higieneari buruzko jarraibideak beteko dira.
- Eztul eta doministiku egitean, sudurra eta ahoa paperezko mukizapiekin estali beharko da eta mukizapiak tapa eta pedala dituen zakarrontzi batera bota.
- Paperezko mukizapirik ez badago, alkandoraren mahukaren gainean egin behar da eztul eta doministiku, eskuak ez kutsatzeko.
- Saihestu beharko da begiak, sudurra edo ahoa ukitzea, ez eskuekin, ez eskularruekin, horrek birusa transmititzea errazten baitu.
- Arnasbideen higienarako ohitura onak eduki behar dira. Ez bota txistua, erabili behin erabiltzeko mukizapiak.

MASKARAREN ERABILERA:

- Maskara indarrean dagoen araudiaren arabera erabili behar da. Maskarak sudurra eta ahoa estali beharko ditu beti. Maskara aldatzean, enpresa hornitzaileak ezarritako zehaztapenei egingo zaie kasu.

BESTE BATZUK:

- Era berean, langileei gogoraraziko zaie ezin dutela jana, objektuak eta tresnak partekatu, aldez aurretik garbitu ez badituzte.
- Ez ukitu aurpegia, sudurra edo begiak.
- Lanlekuak eta ekipamenduak garbitzeko eta desinfektatzeko kontrolak eta neurriak indartuko dira.
- Espazio komunak garbitzeko maiztasuna handitzea.
- Garbiketa lanetarako, erabili binilozko/akrilonitrilozko eskularruak. Latexezko eskularruak erabiliz gero, gomendatzen da azpian kotoizko eskularru bat janztea.
- Hondakinak ohi baino sarriago kenduko dira. Kontu bereziarekin ibili beharko da jarduera horretan, hondakinak eskuekin ukitzea ekiditeko.
- Higiena pertsonal egokia mantentzea.

7.3.2.- Antolaketa neurriak

Antolaketa neurriei dagokienez, gomendio hauek adieraziko ditugu:

- Baloratu, esaterako, ea txandak ezarri behar diren, ea etenaldirik egin behar ote den edo zereginak txandakatu, oraingo egoerak dakarren karga fisikoa eta burukoa arintzeko eta aldi berean eskuak garbitu ahal izateko.
- Ongi berezitatuko lan eta banaketa guneak prestatu beharko dira, bai espazialak bai tenporalak, talde bakoitzarentzat. Lan txandak badaude, aireztatu eta desinfektatu egingo da txanden artean.
- Saihestu lantokian egon daitezkeen leku komunak, atsedeen guneak, officea eta beste leku batzuk batera partekatzea. Instalazioek ez badituzte neurri horiek bermatzen, erabiltzeko txandak programatuko dira, beti segurtasun distantziak gordeta, eta, lan txandak baldin badaude, txanda aldaketarako ordutegiak aldatuko dira langileak leku komun batean elkartu ez daitezen.
- Lana antolatzean kontuan hartuko da nork bere erremintak edukiko dituela erabiltzeko, eta, hori posible ez bada, erremintak erabili ostean garbitu beharko dira eta beste batzuen esku utziko dira.
- Manipulazio prozesuetako ohiko higiene neurriak zorrotz beteko dira (eskularruak, beso babesak, txanoak...), eta elementu horiek janztean eta eranztean kontu handiz ibili beharko da, eskuak ondo garbituta, hori egin aurretik eta ondoren.
- Langileei arriskuak, abian jarritako neurriak, erabili beharreko NBEak eta beste informazio batzuk jakinaraziko zaizkie eta horren gaineko prestakuntza emango zaie, modu berezian eta eguneratuan, Prebentzio Zerbitzuaren arabera.

8.- Ostatu lekuetako protokoloa.

Ostatu lekuetan jarraibide eta gomendio hauek beteko dira protokolo gisa:

- Egonaldien erregistro bat (eskuz edo teknologikoa) edukiko da, baita azpitaldeak osatzen dituzten pertsonen zerrenda bat ere, aurreikusitako taldeko ostatu lekuetan. Arduradun bat izendatu behar da erregistroa zaintzeko (ahal bada ezaugarritutako taldean erreferentzia de pertsona).
- Lantokiko irteera modu ordenatuan eta mailakatuan egingo da, jende pilaketak ekiditeko, eta ostatu lekuetako azpitaldeen egituraketa errespetatuko da. Ahal den guztietan, sartzeko eta irteteko zirkuitu bereziak ezarriko dira, baita pertsonen arteko segurtasun distantziaren erreferentziazko markak ere.
- Baliabideak eskura: osasun alorreko agintaritzek gomendatutako segurtasun neurri guztiak garatzeko behar besteko bitarteko ekonomikoak eta estrategikoak eduki behar dira. Baliabide horien artean sintomak kontrolatzeko baliabide espezifikoak ere egon behar dira, hala nola tenperatura kontrolatzekoak, etab.
- Maskaren, garbiketarako produktuen, eskuetako gel edo soluzio desinfektatzailearen, behin erabiltzeko zapien, mantalen, zabor poltsen eta abarren stocka bermatu behar da, une oro erabilgarri egongo direla ziurtatzeko. Stocka egunero berrikusi.

- Hidrogel edo xaboi likidoaren banagailuak eta behin erabiltzeko toallak eskura jarri beharko dira.
- Gomendatzen da betebeharrak eta desinfekzio, garbiketa eta higienarako guneak seinalatzatzea, eta pertsonen arateko segurtasun distantziaren erreferentziak eta sartzeko eta irteteko zirkuituak ere seinalatzatuta eta adierazita edukitzea.
- Gomendatzen da familia nukleoak edo langile taldeak etxebizitza edo ostatu leku desberdinetan bereiztea, haien artean egon daitekeen erlazioa ahalik eta gehien ekiditeko, eta azpitaldetan egituratuko dira, azpitalde bakoitzean ahalik eta lagun gutxien sartuta. Lan egitean ere bereizketa hori egingo da, 4.2. puntuaren egindako hasierako ezaugarritzea kontuan hartuta. Helburua da familia nukleo edo lantaldeen arteko kontaktua edo ezaugarritutako taldeen artekoa ekiditea, kutsatzeko, gaixotasuna hedatzeko eta, ondorioz, lana eteteko posibilitateak gutxitzeko.
- Neurri eta erabilera handiko ostatuak egonez gero, tarte fisikoak eta/edo aldi baterakoak aurreikusiko dira, eta mantentze, garbiketa eta desinfekzio plan bat ezarriko da espazio komunitarioaren artean: bainugelak, dutxak, zerbitzuak, sukaldeak, jantokiak eta abar.
- Langileen ostatu lekuak baldintza higieniko egokiak eduki behar ditu, eta atsedenerako lekuak, jantokia eta logelak egoki banatuta eduki behar ditu, pertsonen arteko distantzia fisikoa gorde ahal izateko. Saihestu jendea pilatzea.
- Ostatu lekua okupatu aurretik, jabeak bitarteko egokiekin garbitu eta desinfektatuko du ostatu lekua. Eskuetarako xaboia, gel hidroalkoholikoak, behin erabiltzeko zapiak, arroparako eta tresnetarako detergentea, eta garbiketarako eta desinfekzioarako produktuak eta abar egotea ere bermatuko du.
- Arropa garbitzeko: Laneko arropa garbitzeko, ahalik eta gutxien manipulatu behar da, astindu gabe, eta bildu egingo da, suabe, eta zuzenean garbigailura eramango da edo poltsa batean sartuko, garbituko den lekura eramateko.
- Egunero aireberritu beharko da, gutxienez 10 minutuz, egunean 2-3 aldiz.
- Ostatu lekuan egongo direnei hau jakinaraziko zaie berariaz:
 - Higiene neurriak eta etxea aireberritzeko neurriak.
 - Edariak edo jakiak kontsumitzen badira, ez partekatu ez botilarik, ez mahai tresnarik, ezta ontzirik ere, eta garbitu eskuak kontsumitu aurretik.
- Hondakinak sarriago kendu, hondakinak eskuekin ukitzea ekidinda. Zaborrontziak, ahal bada, pedalekin zabalduko dira, eta tapa izango dute.
- Lanaren ondoren ostatu lekura bueltatzen den pertsona batentzat gomendatzen diren higie-ne neurriak pertsonaleko ohiturei eta prebentzio neurriei buruzko informazioa emango da:
 - Eskuak garbitu ezer ukitu baino lehen (giltzak garbitzeko ere aprobetxatu daiteke).
 - Dutzatu.
- Higiene neurriak eta prebentzio neurriak bultzatzen dituzten kartelak eta seinaleak langileek ulertu ditzaketen hizkuntzetan erabiltzea bultzatuko da.
- Ostatuaren izaeraren arabera:
 - Isilik egotea edo ahots tonua murriztea, garrasi ez egitea (ikus 1. ERANSKINA).
 - Airearen kalitatea (CO₂, etab.) kontrolatzeko eta monitorizatzeko aukerak aztertzea, jarduteko eta mantentze lan eraginkorrak egiteko neurri osagarri gisa (ikus 3. ERANSKINA).
 - Areagotu aire berritzeak, dela modu naturalean, dela behartuta.

- Klimatizazio sistemaren kasuan, murriztu birzikulazioa, areagotu airea berritzeko aldiak, eta handitu iragazkiak garbitzeko edota ordeztzeko maiztasuna (ikus 3. ERANSKINA).

9.- Positiboen eta kontaktu estuen kudeaketa.

- Langile bat gaixotasunarekin bateragarriak diren sintomak edukitzen hasten bada talde bakoitzean erreferentzia gisa ezarritako osasun zerbitzuarekin harremanetan jarriko da berehala. Langilea ez da lanera joango edo lanean badago lan egiteari utziko dio osasun alorreko profesional batek bere egoera medikoa baloratu arte edota COVID19aren kontrolerako proba bat egin arte.
- Covid-19arekin bateragarriak diren sintomak edukiz gero, Osasun Kontseilura deituko da berehala, 900 20 30 50 telefonora.
- Langileak ostatu lekua nekazaritzako enpresan baldin badu, osasun agintaritzek bakartzeari buruz emandako jarraibideak bete beharko ditu eta kontaktu estuen ikerketa eta identifikazioa egingo dira, dagokion moduan. Identifikatutako kontaktu estuak ez dira lanera joango, eta horiek ere behin-behinean bakartutako egoteko ostatu lekura eramango dira, probak eta jarraipena egiteko.
- Kontaktua estua izanez gero, langileak arakatzailer taldearen dei bat jasoko du, kasua baloratzeko eta egungo ostatuak berrogeialdia egiteko beharrezko segurtasun baldintzak betetzen dituen edo hotel batera eraman behar den ebaluatzeko. Kontaktua estua zer motatakoa den kontuan hartuta (txertatu gabeko kontaktua, txertatutako kontaktua edo duela 180 egun baino lehenago infekzioa jasan duena), Jarduera Protokolo honetako 11. orrialdean adierazten den moduan jardungo da (4.2.- Informazioa, Zaintza eta Kontrol Epidemiologikoa).
- Langileak COVID-19aren sintoma susmagarriak baditu, eta bere PDIA (Infekzio Aktiboaren Proba Diagnostikoa) negatiboa bada, baina duela gutxi kontaktu estua izan badu, gutxienez 10 eguneko berrogeialdia bete beharko du. Proba diagnostiko baten lehen emaitza negatiboak esan nahi du laginean ezin izan dela birusa detektatu, baina horrek ez du esan nahi birusa inkubatzen ari ez denik. Horregatik, garrantzitsua da arriskuarekiko esposizioaren ondorengo 10 egun horietan berrogeialdian egotea; epearen amaiera aldean (8. eguna) beste PCR bat egingo da, eta berriro negatiboa bada eta sintoma susmagarriak gabe jarraitzen badu, berrogeialdiaren amaiera adieraziko da.
- Kontaktuen ikerketa, identifikazioa eta trazabilitatea landako lanerako (lan lekuak) eta ostatu lekuetarako ezarritako erregistroen bitartez egingo dira.
- Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuek lan eremuko kontaktu estuen kontrola eta jarraipena egin beharko dute.
- Kasu positibo bat antzemanaz gero, COVID-19rako garbiketa eta desinfekzio berezia egingo da kasu positiboa egon ahal izan den lekuetan eta ukitu ahal izan dituen gainazal, erreminta eta abarretan.

10.- Ikuskapena eta kontrola.

